

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakariak Reyno de Navarra Nazioarteko Turismo Azokaren 11. edizioa inauguratu du

Bere agerraldian ekimen publiko eta pribatuen arteko lankidetzaren beharra azpimarratu du

Viernes, 26 de febrero de 2016

Nafarroako Lehendakari Uxue Barkos Navatur [Reyno de Navarra Nazioarteko Turismo Azokaren](#) hamaikagarren edizioaren inaugurazio-ekitaldian izan da, gaur eguerdian. Bertan, landaturismoak Nafarroako eskaintzaren zutabe modura duen garrantzia azpimarratu du, eta ekimen publiko nahiz pribatuen arteko lankidetzaren beharra agerian utzi du.



Lehendakariak Navatur inauguratu du, Iruñeko alkate Joseba Asiron eta azokaren zuzendari Luis Cortesekin batera.

Barkos Lehendakariak bere [agerraldian](#) nabarmendu duenez, Nafarroa "komunitate txikia izan arren, sustatu behar dugun turismo-esparruan ezagutza sakon eta zehatza du".

Gainera, bi gai nabarmendu nahi izan ditu: publiko berrien osaera eta azokan beste autonomia erkidego batzuetako zuzendari nagusiak izatea; "horrek guztiak, Gobernu honek komunitatez gaindiko produktuak nahiz eskaintzak sortzeko duen politika sendotzen du nolabait, oso lehiakorra den testuinguruan eta nazioarteko merkatu batean aukerak izango dituztenak".

Gobernuak, adierazi du Uxue Barkosek, "sustapen, ikusarazte eta merkaturatzeko bide berritzaileak bilatzearen aldeko ahalegin eta apustua baloratzen, aitortzen ditu".

500 helmugatik gora

Azoka gaur, ostirala, hilak 26, hasi eta igandean, hilak 28, amaituko da Baluarten, 11:00 etatik 14:00etara eta 16:00 etatik 20:30era; bertan, lau kontinente eta bostehun helmugatako ehun bat erakustoki jarriko dira, eta haien artean, Peruko ekoturismoko eskaintza, Kenya eta Tanzaniako safariak eta Zimbabwek eskaintzen dituen aukera guztiak nabarmendu behar dira,

Espainiako iparraldeko turismo-azoka garrantzitsuena da, Ferias de Navarra antolakuntzak dioenez. Landa Turismoko Nazioarteko Kongresuarekin batera egingo da.

32.000 bat bisitari espero dira, eta haiei guztiei, oporretarako ideiak emateaz gain, sustapen eskusiboak eta deskontuak eskainiko zaizkie. Bidaiak eta sarrerak ere zozkatuko dira.

Lehendakariak azoka hau garrantzitsua dela Nafarroarako azpimarratu du, 1.500 gualdi sortzen baititu eta 2,7 milioi euroko itzulkina sortzen.

Lehendakariak nafar guztiei nahiz beste autonomia erkidego batzuetako jendeari gonbita luzatu die "Navarturrera, Nafarroako turismoko asteburu honetara etor daitezten".



Lehendakaria, Asiron alkatea, Luis Cortes eta Maitena Ezkutari, Turismo eta Merkataritzako zuzendari nagusia, azokara egindako bisitaldian.